

# Arabako emakumezkoen kirola, Parisera begira

**Joko Olinpikoak eta Paralinpikoak, mugarri Frantziako hiriburuko hitzorduan izango diren Gasteizko kirolarien agendetan.**

15.000 kirolari inguru bilduko dira Frantziako hiriburuan, kirolaren festa erraldoi diren horien harira, batetik Olinpiadetan, uztailaren 26tik abuztuaren 11ra bitartean, eta bestetik Joko Paralinpikoetan, abuztuaren 28tik irailaren 8ra bitartean.

Joko Olinpikoen 33. edizioan 206 herrialdetako 10.500 atleta inguru lehiatuko dira, NOBek (Nazioarteko

Olinpiar Batzordea) Errusiako eta Bielorrusiako kirolariak bandera neutral baten pean aritzea onetsi ostean. Aldiz, Joko Paralinpikoetako 17. edizioan, 182 herrialdetako 4.400 kirolari izango dira, desgaitasun fisiko, intelektual, bisual eta paralisi edo garuneko lesioak dituztenak.

Beste behin ere, Arabak emakumezko ordezkaritza ederra izango du,

zazpi kirolarik poltsikoan baitute dagoeneko Parisera joateko txartela, honako hauek: Araski ekipoko Made Urieta entrenatzailea, Salma Solaun gimnasia erritmikoko taldeko kidea, Majida Maayouf eta Tessy Ebosele atletak, eta Zuzenak klubeko gurrpil-aulkiko hiru saskibaloijokalarari, Agurtzane Egiluz, Laura Ugarte eta Naiara Rodríguez.



## Made Urieta (Amurrio, 1981)

*“Zorionekoa ni, bigarren aldiz Joko Olinpikoak bizi ahal izango baititut”*

Kutxabank Araskiko entrenatzailea Espainiako saskibaloi selekzioko talde teknikoko kide izango da, beste behin ere, Tokion lehen esperientzia izan ondoren. Espainiako saskibaloiairen kategoria gorenean zortzigarren denboraldiz jokatu duen klubaren buruan, Amurrioko kirolariak saskibaloiairen oinarriko balioen isla da, eta haren bidetik asko hazi da Arabako hiriburuko kiroldegietan saskibaloian dabilzan adin oso txikiko neskatxen kopurua; eguneroko lanari esker, harrobia gero eta handiagoa da.



## Salma Solaun (Gasteiz, 2005)

*“Europako txapelketako urrea Parisko podiumeko atea irekitzeko giltza izan daiteke”*

Beti Aurrera gimnasia taldeko kirolariak arrakasta handiak izan ditu 2022an selekzio nazionalean sartu zenetik. Bost domina irabazi ditu munduko txapelketetan, zilarrezko bat eta brontzezko lau, eta beste horrenbeste Europakoetan, eta horien artean Budapesten (Hungaria) maiatzean lortu zuen urrea nabarmentzea merezi du... Ez dira meritu makalak Parisko Jokoetan ere dominaren bat irabaztearekin amets egiteko. Marga Armasen ikasleak Abetxukuko kiroldegiko (aspalditik gimnasia erritmikoa darion lekuko) tapiz gainean egin zituen lehen urratsak. Duela aste batzuk tapiza utzi eta medikuntza ikasketetan zentratu den Teresa Gorospe eta Salma bera dira Arabako bi gimnasta erreferenteak Madrilgo Errendimendu Handiko Zentroan, biak ere Alejandra Quereda hautatzaileak zuzendutako Espainiako selekzioko kide.



## Majida Maayouf (Maroko, 1989)

*"Parisen egoteko osasuna, besterik ez dut eskatzen"*

2023ko ekainean espainiar nazionalitatea lortu zuen, Araban hamarkada oso bat eman ondoren. Bere ametsa lortzearekin erabat tematuta, Gasteizko eraztun berdeko paraje ederrak, Mendizorrotzeko atletismo-pista, eta gaur egun bizitoki duen Agurainen inguruko bidexkak ibili izan ditu, tinko, gogor, luuuuze, bere espezialitateak, maratoniak, korrikaldi benetan luzeak egitea eskatzen baitio.

Distantziaren egungo errekor nazionalaren jabea dela (2 ordu, 21 minutu eta 27 segundo), ez dio mugarik jartzen bere buruari. Abuztuko tenperatura altuek erregistro apartekorik egitea oztopatuko diotela jakitun, momentu hori gozatzea eta entrenamenduetan irabazitako guztia aplikatzea du helburu, hartara onenen artean egon ahal izateko.

**Arabak emakumezko ordezkari ugari izango ditu berriro, zazpi kirolari konfirmatuta.**



## Tessy Ebossele (Maroko, 2002)

*"Nire onena ematen saiatuko naiz"*

Gasteizko atletak 13 urterekin deskubritu zuen atletismoa, La Blanca klubaren eskutik. Mendizorrotzeko pistan hasi, eta laster batean bihurtu zen etorkizun oparoko kirolari jauzi hirukoitz eta luzera-jauzi modalitateetan. Bigarren horretan zentratu da azken urteetan, eta ez alferrik, Espainiako txapeldun izan baita azken bi urteetan. Hazkunde meteorikoa izan du. Guadalajaran bizi da gaur egun, Iván Pedroso jauzilari ohi kubatarraren agindupean entrenatzeko. Jauzi hirukoitzeko zilarrezko domina eskuratu izan du munduko txapelketetan, sub-20 kategorian; luzera-jauziko zilarrezkoa baita Europakoetan, sub-20 kategorian; eta brontzekoa, berriro ere luzera-jauzian, Europako txapelketetan. Parisen barruan duen guztia emango du, eta, seguru asko, buelta emango ahalko die Erroman egin berri den Europako txapelketaren eta iaz Budapesten egin zen mundukoaren emaitzei: Erroman finalaren atarian geratu zen, 6,47 metroko jauzi bati esker, eta Budapesten zortzigarren, 6,62 metroko markarekin.



## Agurtzane Egiluz (Gasteiz 1997), Laura Ugarte (Ozaeta 1994) eta Naiara Rodríguez (Gasteiz 2004)

*"Saria da hainbeste urtetako ahaleginari"*

Zuzenak klubeko gurgil-aulkiko saskibaloiko hiru jokalariek bide bat ireki dute lau urte hauetan, eta, azkenean, saria lortu dute: Parisko Joko Paralinpikoetara joango dira. Astero-astero aritu dira prestaketa-lanetan eta entrenatzen, lehen mailan dagoen Vital Zuzenak Fundazioko taldearekin batera, Jarduera Fisiko Egokiturako "Julio Roca" Zentroan, hortxe baitu egoitza entitateak. Agurtzane Egiluzentzat bigarren aldia izango da, Tokioko Jokoetan ere izan baitzen. 27 urte besterik ez duela, bere kirol-ibilbideari urrezko amaiera emateko moduan da. Laura Ugartek eta Naiara Rodríguezek, berriz, lehen aldiz biziko dute abentura olinpiko ahaztezina. Franck Belen hautaizalearentzat ezinbesteko jokalaria bihurtu eta Osakan Joko Paralinpikoetarako sailkatzeko probetan arrakasta izan ondoren, hitzordu historiko baten protagonista izango dira abuztuaren 28tik irailaren 8ra bitartean.